

056

DOKUMENTUAK


**QUEBEC-eko
EZKERRAREN
BERROSATZEA ETA
SINDIKALISMOAREN
PAPER POLITIKOA**

Thomas Collombat eta Xavier Lafrance

QUEBEC-eko EZKERRAREN BERROSATZEA ETA SINDIKALISMOAREN PAPER POLITIKOA

Thomas Collombat eta Xavier Lafrance

Sindikalismoa eta politika	5
Sindikatu eta alderdi politikoen arteko loturak Quebec-en	11
Québec Solidaire: Quebec-eko errealitatea nazioarteko testuinguruan	15
Québec Solidairen agertzea eta sendotzea	19
Québec Solidaire eta sindikalismoa	23
Ondorioa	29
Bibliografia	33



Dokumentuak 56

2024ko otsaila

www.mrafundazioa.eus

@mrafundazioa

QUEBEC-eko EZKERRAREN BERROSATZEA ETA SINDIKALISMOAREN PAPER POLITIKOA

Thomas Collombat eta Xavier Lafrance**

*Artikulu hau Recherches sociographiques aldizkariaren
2022ko lehen seihilekoan argitaratu zen frantsesez.*

2018ko hauteskunde orokorrek hainbat aldaketa garrantzitsu ekarri dituzte Quebec-eko eszena politikoan⁽¹⁾. Ezkerrean, inolako zalantzarik gabe, *Québec Solidaire* (QS) alderdiko hamar hautagairen garaipena izan da, hauetarik lauk, Montrealeko uhartetik kanpo irabazi dutelarik, oihartzun handiena ukan duena. Progresisten eremuan berriki arte nagusi zen *Parti Québécois* (PQ) alderdiaren parera igoz, iduri luke QS legebiltzarreko ezkerrean aldaketa ekartzen duela, azken hamarraldietan munduko beste herrialdeetan sozial demokraziaren krisiaren inguruan izan diren alderdien berrosaketa mugimenduekin gertatu den antzera.

Quebec-en herri industrializatu gehienetan bezala, eragile politiko berezi batean bermatu ohi da ezkerrean, bere hautesleen oinarria mobilizatzeko: mugimendu sindikala. Ekoizpen modu kapitalistan leku zentrala zueñez, mugimendu sozialen baitan halako hegemonia beterik, aro neoliberalaren etorrerarekin hausnarketa berri batean sartu zen. Dinamika politikoen eragile nagusi bat izaten jarraitzen du, dena den, eta bereziki Quebec-en, legebiltzarreko saioetan eta hauetatik kanpo ere. Ezkerrean gertatu birlerrokatzeek zuzenki hunkitzen dute beraz, eraldaketa hauek gertatu aurretik edo ondotik.

* **Thomas Collombat** Zientzia Politikoko irakasle agregazioduna eta Quebec-eko Unibertsitateko Gizarte Zientzia Saileko zuzendaria da Outaouais-en. Ekintza sindikalaren dimentsio soziopolitikoak ikertzen ditu nagusiki, bai Latinoamerikan, bai Quebecen eta bai Kanadan.

* **Xavier Lafrance** Zientzia Politikoko irakasle agregazioduna eta Quebec-eko Unibertsitatean, Montrealen. Bere ikerketak alderdi politikoen eta mugimendu sozialen arteko harremani buruzkoak dira, bai eta kapitalismoaren soziologia historikoari buruzkoak ere.

¹ Artikulu honetan erabilitako datuen zati bat Kanadako Giza Zientzietako Ikerketa Kontseiluaren (CRSH) Jakintzaren Garapenaren dirulaguntza bati eta Jendarte Berrikuntzen Ikerketa Zentroaren (CRISES) Quebec – Jendarte eta kultura ikerketa Fondoak (FRQSC) diruztatu batasun estrategikoaren laguntzari esker bildua izan da.

Quebec-eko ezkerrean agertu aldaketa berrien lehen azterketa bat, bi zati-tan, proposatzen du artikulu honek. Sindikalismoak esfera alderdikoiarekiko harremanean duen paper politikoa galdezkatzen dugu lehenik, ikusteko zein neurritan lagundu duen QSren indar hartzean eta honek zein neurritan hunkitu duen. Ondotik aztertzen dugu QSren sortzea eta sendotzea, ez bakarrik arlo sozial eta arlo nazionalaren arteko harremanaren berrartikulazio testuinguruan, baina baita mendebaldeko ezker alderdikoiaren birmoldaketa mugimendu zabalago baten azalpen bat bezala. Horretarako, lehen zatian aurkeztua den ekonomia politiko kritiko ikuspegi bat hartzen dugu. Hunkituak diren eragile desberdinen birkokapen historiko sakona egin behar dugu horretarako.

Aldi berean, ezkerreko alderdiei eta sindikalismoari buruzko literatura zientifikoan, prentsa orokorretik hartutako bigarren mailako iturrietan, erakundeek ekoiztutako dokumentazio ofizialetik hartutako lehen mailako iturrietan, eta, gaur egun Quebec-en burututako eskualde mailako sindikatuei buruzko ikerketa egitasmo batetik hartutako jatorrizko aurre-datueta oinarritzen da. Quebec-eko bi sindikatu handien eskualde mailako egituren ekintzen neurri politikoa aztertzen du ikerketa honek. Haien izaera interprofesionala dela eta, klase elkartasun eta mobilizazio politiko sorkuntza esparruak zein neurritan osatzen dituzten identifikatzea da hemen helburua. 2018 eta 2021 artean egitura sindikal hauetako arduradun, hautetsi edo liberatuekin burututako 21 elkarrizketen bidez, bai eta *Confédération des syndicats nationaux*-en (CSN)⁽²⁾ hiru kontseilu zentraletako ordezkariak eman galdetegien bidez bilduak izan dira. Galdetegi hauetan, erantzunak ekartzen zutenen militante gisako ibilbideaz, haien hautu politikoez eta alderdikoiez eskatzen zitzaizen. Datu hauek ez dira, urrundik ere, osoak, baina hauei esker, artikulu honen izpirituari jarraikiz, lehen begirada bat botatzen ahal zaio QSk politizatuentzat hartuak diren mugimendu sindikaleko sektore batzuekiko duen harremanari buruz, eta, honela, sindikatuen eta politika instituzionalaren arteko loturari buruz etorkizunean egin beharreko ikerketak burutzeko mugarriak jar ditzakete.

² Orotara, 418 galdetegi banatuak izan dira Outaouais (2019ko apirilean, % 62,5eko erantzun tasa), Abitibi-Témiscamingue – Ipar Quebec (2019ko maiatzean, % 78,5eko erantzun tasa) eta Montreal metropolitarrak (2019ko ekainean, % 57ko erantzun tasa) kontseilu zentraletako biltzarretan.

SINDIKALISMOA ETA POLITIKA

XIX. mendeko industria iraultzarekin batera sortu sindikatuak progresiboki kapitalaren eta Estatuaren solaskide gisa inposatu dira, demokrazia liberal industrializatuen baitan. Esparru publikoarekin harreman uniformeagoa duten beste presio talde edo mugimendu sozialez besteak beste, desberdintzen ditu, esfera ekonomiko eta politikoaren azken mugetako kokapen honek. Tentsioak edota aurkako jarrerak eragiten ditu ere, sindikatuen ekintzak, batzuetan, kapitalismoaren erregulazioa (eta beraz mantentzea) lagun baitezake, eta beste batzuetan honen oinarriak zalantzan ezarri eta, ondorioz, honi azkarki aurre egin diezaioke.

Sindikalismoak politikarekin duen harremana beraz, eztabaidan ezarria den alorra da, maila enpirikoan bezainbat maila analitikoan ere. Kapitalak usaian dio sindikatuak, izatekotan, bakarrik esfera ekonomikoan gelditu beharko luketela, eta, beraz, bereziki ipar Amerikan dagoen testuinguruan, zeinetan laneko harremanak negoziazioa eta hitzarmen kolektiboaren bidez kudeatzen diren. Sindikatuaren papera, orduan, bere kideak ordezkatzean besterik ez datza, bere esan-nahi hertsienean, eta hau bakarrik haien lan eremuen baitan, haien enplegatzaileekiko harremanetan. Ikuspegi hau sindikalismoaren azterketa korronteetan islatzen da, besteak beste laneko harremanen judizializazio gero eta handiagoko testuinguruan, negoziazio kolektiboko mekaniketan eta honen aspektu teknikoetan kontzentratzen diren industrial harremanetan, azken hauek despolitizatuak direla sinetsi arazteraino. Konkretuki, sindikalismoari sendotzea edota haren papera lan eremuetan instituzionalizatzea ahalbidetu dioten lan legeek honen ekintza politika ahalmena mugatzera eraman dute ere, greba “sozialak” edo elkertasunekoak deitutakoak debekatuz, adibidez, edota ere sindikatuaren jarduera erabat “politikotzat” hartua izan daitekeen sindikatu-kotizazioaren zati bat aukerakoa izatea ahalbidetuz.

Ekonomia politiko kritikoak beste ikuspegi bat ekartzen du. Sindikalismoa, oroz gainetik, paper bikoitza jokatzen duen klaseko eragiletzat hartzen da: hemen xedea ez da bakarrik langile klasearen interesak defenditzea, baina bai interes horiek beti eta aldi berean definitzea. Alabaina, soldatapekoen kolektiboa anitza eta dinamikoa izanik, ez baita ez homogeneoa ez eta denboran finkatua ere, haren errepresentazioak eragin beharreko ekintza logika kolektibo konplexuago bati erantzun behar dio. Horrek esan nahi du esfera “ekonomikoaren” eta “politikoaren” arteko bereizketak ez duela zertan izan, ez bakarrik sindikalismoa erabat

zilegi delako lan interesak eremu politikoan gorpuzteko, baina lan munduan dituen jarduerak ere, hitzarmen kolektiboen negoziazioan adibidez, erabat politikoak direlako ere. Klase antagonismoen isla direnez, jarduera hauek botere logika berdinei erantzuten diete eta esfera alderdikoian edo parlamentarioan gerta daitezkeen aberastasun ekoizpenari eta banaketari buruzko eztabaida berdinen iturri dira. Lan eta gizarte ingurumenak espazio hermetikoak bezala ikusi ordez, komenigarriagoa da aitortzea *“sindikatuak egiten duten guztia –eta egiten ez dutena– benetan arlo politikoan sartzen dela”*.

Hiru inplikazio garrantzitsu ateratzen dira sindikalismoa eta politikaren arteko loturen aztertzeo ikuspegi horretatik. Lehenik eta behin, ez dira bortxaz egokitzen soldatapekoen kolektiboa eta erakunde sindikala. Sindikatu aparatua eta ordezkatzen dituen langileen arteko lotura, aitzitik, etengabe berrosatzen da, batzuetan hauekin fasean eta bestetan batere. Horrek esan nahi du ez dituztela kide guztiek, ez eta hauen gehiengoak, erakunde sindikalak finkatzen dituen jarrerak eta kontsignak nahitaez segitzerik, adibidez. Honek eramaten du sindikatuak formalki ordezkatzen dituzten multzoei zuzendu ekintza publikoak testuinguruaren arabera birkokatu eta erlatibizatzeko beharrera.

Bigarrenik, sindikalismoa oro har ez da eragile homoginoa, ez eta uniforme ere. Bi hitzarmen kolektibo berdin aurkitzea ez bada usu gertatzen ere, gauza bera gertatzen da esplizituki politikoagoak diren jarrera eta ekintzekin. Horiek, hein handi batean, sindikatuak kide diren langileen ezaugarri profesionalak dagozkie, baina baita sindikatuaren antolaketak kulturari ere. Horrela, adibidez, Estatuak enpleguak ordezkatzen dituzten sindikatuak historikoki mugatuak izan dira haien ekintza politikorako ahalmenean (kargu publikoak hautatu gobernuarekiko duen “neutraltasun alderdikoia” zaintzeko gisan), eta hauek hauen estatutu eta jardueretan sartzeko joera izan dutenean.

Aniztasun hau erronka bat da ere sindikalismoarentzat, mugimendu gisa. Sistema kapitalista batean lanaren indar harremana bere indar numerikoari eta ekoizpen moduan duen posizio estrategikoari esker finkatua baldin bada, neurri handi batean mugimendu sindikalaren batasun gaitasunaren menpe dago, bai kapitalaren aurrean eta bai Estatuaren aurrean. Hala ere, zatiketa sektorialak, profesionalak edo korporatibistak usu gertatzen dira sindikatuetan. Bereziki garrantzitsua da arrisku hau sindikatuaren ekintza politikoa aztertzeo garaia heldu denean, haien posizionamenduak eta estrategiak erreflexu korporatibisten bezain bat klase elkartasun nahikerien arabera izaten ahal diren heinean. Alde

horretatik garrantzitsua da, beraz, erakundeak batzuek besteengandik bereiztea eta, besteak beste, sindikatuak lurralde mailan (udalerrria, eskualdea, probintzia), jarduera sektorea edo lanbideen arabera, biltzen dituzten “interprofesionalak” deitutakoek klase elkartasunaren alde jotzeko joera handiagoa dutela ohartzea. Desadostasun hauek literaturan dauden arketipo batzuk gurutzatzen dituzte ere, besteak beste “negozio” sindikalismo bat, haren kideen berehalako interesetan zentratua eta, beraz, klase, sindikalismo “sozial” edo “mugimendu sozialaren” ekintza politikora gutxi lerratua, erronka soziopolitiko zabalei eta, beraz, eremu politikoan sartzeko eta bertan elkartasun interprofesional azkarren aldarria adierazteko interes gutxirekin.

Azkenik, ikuspegi horrek ekartzen du sindikatuen jarduera politikoak ez direla alderdiekin dituzten harremanetan mugatzen. Parlamentuko eszenatokian eragina ukaiteko moldeak erregulariki eztabaida sortzen du langile mugimenduaren baitan, baina neurri estrategiko azkarra geratzen da, sindikalismoaren konpromisoa berez laburbiltzen ez duena. Lan harremanak politikotzat hartzeaz gain, inplikazio politiko autonomo tradizio luzea dute erakunde sindikalek, beste mugimendu sozial batzuekin koalizioak eraikiz, besteak beste, baina baita aldarrikapen plataformak, edota alderdi politikoek egin proposamenetik kanpo planteatzen diren jendarte egitasmoak antolatuz ere.

Hala eta guztiz ere, sindikatuen eta alderdi politikoaren arteko loturek, dimentsio handikoak izaten segitzen dute, hedabideetan azkarki zabalduak eta sindikatuen baitan eztabaidatuak. Mota askotako konfigurazioak izan ditzakete, eta hemen, Kanadan dituztenetan gara berezikiago zentratuko. Kanadako sindikatu eta alderdi politikoaren arteko loturei buruzko ikerketak leku zabala eskaintzen dio *Nouveau Parti Démocratique*-ri (NPD) (Alderdi Deemokratiko Berria). 1961ean talde desberdinek sorturik, hauen artean sindikatu ugari, langile mugimenduaren ordezkaritza Parlamentuan gorpuztea zuen xede NPDK, Erresuma Batuan *Alderdi Laboristak* egin moduan. Kanadako hainbat sindikatu handi azkarki inplikatuta badira ere NPDn, eta oraindik hala egiten segitzen badute ere, ohartzekoa da hala ere bat egiteko erabaki hau ez dela inoiz ere aho batez hartua izan eta hainbat erakunde alderditik at geratu direla. Kasu horretan ditugu, adibidez, sektore publikoko hainbat sindikatu, gorago aipatu arrazoinengatik, esparru alderdikoiarekiko loturak NPDren berme potentziala gainditzen zuela barneratu dutenak. Alderdiaren hauteskundeetako emaitzek kaltetu dute ere sindikatuen bermea. Federal mailan, alde batetik, NPDK ez du inoiz lortu gobernua moldatzen, Estatuaren zuzendaritzan molde

iraunkorrean eragina ukan nahi duten erakundeetan oinarritzeko interes estrategikoa mugatzen duelako honek. Beste aldetik, NPDk boterea hartzen lortu duenean zenbait probintzian, alderantzizkoa izan da, sindikatuen jarrera eta aldarrikapenetatik urrundu izateak kalte egin dio langile mugimenduaren baitan zeukan sostengu oinarriari. Alde horretatik, Bob Rae Ontarioko lehen ministro gisa bete kargualdia usu eredu bezala ekarria da NPDri ekarri sindikatuen sostenguaren apaltzea irudikatzeko, azken honek ukan zuen “birkokapen” garrantzitsuegiarengatik. Oron buru, finantzatze politikoko legee pixkanaka jarri aldaketek, federazio mailan edo probintziakoan, sindikatu batzuen eta NPDren arteko harremana hondatu dute. Sindikatuen sostengua askotan alderdiari laguntza ekonomiko bat eskainiz adierazten zen bitartean, pertsona juridikoei ezarri mugek edo debekuek elkartasun bide hau ahuldu dute. Hainbat ikerketek erakutsi dute, hala ere, kidesan ideologikoe eta lotura historikoe sindikatu desberdin batzuen eta alderdiaren arteko lotura iraunarazi zutela, finantza gaiaz harago. Alderantziz, sindikatu batek alderdiari ekartzen dion sostengua ez da, urrundik ere, kideek azken honen alde ekar dezaketen erabateko botoaren bermatzailea. Sindikatuetakoa kideek, oro har, haien sindikatuak sostengatzen duen alderdiaren alde, herritarren gehiengoak baino bozkatzeko joera handiagoa badute ere, haien lehentasun alderdikoen ordena, gainerako hautesleen nahiko antzekoa da. Muga hauek badira ere, autore batzuek diote NPDren existentziari esker dela Kanadako mugimendu sindikala klaseko aktore bezala garatu, Estatu Batuetako sindikalismoarekin gertatu ez bezala, bertakoak Alderdi Demokratikoarekiko ukan jarrera, lobby baten jarrerarekin pareka baitaiteke. “Laborismo inperfektu” honek, Kanadako eszena politiko eta sindikaletik bereizitako identitate markatzaile bat osa dezake beraz.

NPDri ekarri sostengua ez da ordea kanadar sindikatuen artean indarrean dagoen estrategia bakarra. Hainbat erakunde aurkitzen ditugu ere, edo betidanik, edo NPDrekiko atxikimendu galtze baten ondorioz, beste bide batzuk hartu dituztenak. Hauen artean badira, besteak beste, sindikatuaren lehentasunen eta aldarrikapenen inguruan kanpaina egitea, erakunde alderdikoi baten alde egin ordez, edo “boto estrategikoa” egitera deitzea, erakundearentzat arriskutsuena den alderdia blokeatzeko, bakar baten alde, kasu honetan NPD, egin beharrean. Azken aukera hau bereziki interesgarria izan zen Ontarion, Mike Harris-en agintaldi kontserbadoreen ondorioz, langileen mugimenduarentzat bereziki kaltegarriak izan baitziren. *Kanadako Automobilgintzako Langileek* (TCA, Uniforretik aurrera) Kontserbadoreak hautatzeari oztopo egiteko puntualki Liberalak sostengatzea erabaki izanak bereziki markatu zuen Kanadako ezkerre,

sindikatu hori luzaz izan baitzen NPDri emandako babes sindikalaren zutabeetako bat. Hala ere, estrategia horren eraginkortasuna zalantzan dago. Izan ere, diziplina eta homogeneotasuna suposatzen du sindikatuko kideen botoari dagokionez eta ez da hala gertatu. Bestalde ere, agerian geratu da NPDko hautesleek are gutxiago jarraitzen dituztela boto estrategikoaren kontsignak joera liberal edo kontserbadoreko hautesle zentristago batek baino.

Kanadako adibidea beraz, ekonomia politikoaren esparru teorikoa modu sinesgarrian plantan ezartzea da. Mugimendu sindikalaren aniztasuna agerian uzten du eremu alderdikoiarekiko harremanean, NPDrekiko loturaren dimentsio estrategikoa erakusten du, honengatik hau ahulduta gera daitekeenean, eta egitura sindikalak kideengan izan dezakeen eraginaren mugak agerian uzten ditu. Hala ere, Quebec-eko giro politikoaren eta langile mugimenduaren berezitasunen ondorioz, sindikatuen eta alderdi politikoen arteko harremanak ez datoz bat, guti edo aski, Kanada ingelesean dagoenarekin.

SINDIKATU ETA ALDERDI POLITIKOEN ARTEKO LOTURAK QUEBEC-EN

Quebec Ipar Amerikako gainerako herrialdeetatik bereizten da bere aniztasun sindikalagatik. Lau zentral sindikal eta ezin kontatu ahala sindikatu independente, afiliatuak ez direnak, ditu. Artikulu honetarako, nagusiki bi zentral garrantzitsuetan zentratuko gara: *Quebec-eko Langileen Federazioa* (FTQ) eta Sindikatu Nazionalen Konfederazioa (CSN). Lehen aipar amerikar sindikalismo nagusiaren inkarnazioa da Quebec-en, eta *Kanadako Lan Kongresura* (CTC) afiliatua da, autonomia handia atxikiz. Sindikalismo katolikoaren oinordekoa da bigarrena, baina elizgizonen eraginetik erabat aldendu da 1960 hamarralditik aitzina. Sektore publikoan da bereziki indartsua.

Kanadako gainerako herrialdeetan ez bezala, NPDk ez du lortu Quebecen hauteskunde federaletan oinarri azkar bat sendotzen, eta, gainera, ez du nehoiz probintzian adar iraunkorrik garatu, nahiz eta behin baino gehiagotan saiatu. Hauetariko asko, *Quebec-eko Alderdi Sozialista* efimerokoak, adibidez, hainbat esparrutatik etorritako militante sindikalek burutuak izan ziren (Fernand Daoust, idazkari nagusi eta gero FTQko presidente izango dena, Michel Chartrand, CSNn aktibo izango dena). Beste tendentzia garrantzitsu bat ba zegoen hala ere garai hartan, Alderdi liberaleko sektore batzuetatik hurbil zen sindikalismo katolikoaren baitan bereziki. Hurbiltasun horrek eragina izan zuen Lesageren gobernuak sektore publikoaren sindikalizazioarekiko zuen norabide aldaketan (hasiera batean kontra bazen ere, 1964an baimena eman zion mugimendu sindikalaren presioen ondorioz), baina baita Estatuko enplegatuei alderdi politiko bati formalki lotutako sindikatu batekin bat egitea debekatzeko Gobernu horrek hartu erabakian ere. FTQ orduan NPDn afiliatuta zegoenez, CSNri bidea libre utziz horrela, sektore publikoko erakunde adierazgarriena bilakazteko laster.

Beste arlo batzuetan bezala, *Alderdi Quebectarraren* (PQ) sortzea, 1968an, haien estrategia eta aliantzak aldatzera eraman zituen sindikatuak. Aldarrikapen nazionalistak eta langileen aldekoak uztartzen dituen programa batekin, erakunde sindikalentzako bide politiko erakargarria bilakatzen da PQ berehala. FTQ, bereziki, alderdiaren aliatu baliotsua izango da. Sektore pribatuan presentzia handia du, bertan hizkuntza erronka garrantzitsuak jokoan daudenean enpresa batzuetan, zentralak kasu berezia egiten dio sindikatuen aldeko PQren programako elementuetan sar dadin lan eremuetako frantsese nahikeria. CTCko afiliatu bezala, NPDren sorreran lagundu zuen eta, beraz, ez zen alderdi

politiko bati sostengua ekartzeko ideiarene kontra. Korrante nazionalista eta independentista azkarrez ere osaturik, aski goiz hala ere saiatzene da pankanadiar mugimendu sindikaletik ahalduntzen eta, beraz, PQra buruz jotzen du, aliatu pribilegiatua bilaka arazteko eszenatoki politiko parlamentariorako. Alderdi hau sostengatu du kasik hauteskunde orokor guzietan 2000 hamarkadaren hastapena arte, 1985ekoez aparte.

CSNko eta *Quebec-eko Irakaskuntza Zentraleko* (CEQ, 2000. urtean *Quebec-eko Sindikatuen Zentralea bilakatua*– CSQ) zuzendaritzan afiliazioa txikiagoa izan zen. Bi zentral horiek gehienbat sektore publikoan egoteaz gain, sindikalismo katolikoaren ezaugarri azkar bat mantendu dute, deskonfesionalizatu baldin badira ere: alderdi politiko bati sostengu espliziturik ez ematearena. Bestalde, 1970eko hamarkadako Quebec-en, nolabaiteko arrakasta duten ezker muturreko korrante “erradikalene”, finkatzeko esparru emankorrek aurkitzen dituzte CSN eta CEQ-en. Hainbat militanteek bere egiten zuten “borroka sindikalismo” honek ez du gehiengoaren adostasuna lortzen. CSNri kalte egiten dio eta hainbat zatiketa ezagutuko ditu, sindikatu batzuk ez dutelako gehiago bat egiten zentralak hartu duen norabide politikoarekin. 1972koa izanene da zarata-tsuen, eta ondorioz, Sindikatu Demokratikoen Zentralea (CSD) sortu zen, CSNtik joandako sektore pribatuko sindikatuek gehienbat osaturik.

Garai hartanda, CSNko *Montreal-eko Kontseilu Nagusiak* abiatuturik, metropoliko ezker soziala eta komunitarioa bateratuaren Montreal-eko Soldatapekoen Ekintza Politikorako Frontea (FRAP) sortzeko, alderdi probintzial bat osatzeko lehen urrats gisa. FRAPek 30 hautagaitza baino gehiago aurkezten ditu, 1970eko udaletxeetako hauteskundeetan Montrealeko zinegotzi izateko. Hauen erdia baino gehiago mugimendu sindikaletik datoz, baina bultzada hau geldiarazten du, kanpaina betean gertatu urriko krisiak. Ezkerreko udal alderdiak, hala ere, botoen % 15,6 lortu ditu. Haien sostengua ekartzeari uko egin zioten FTQk eta CSNeko zuzendaritzak bazterturik, alderdiak, desegin aitzin, hauteskunde politikatik erretiratzea erabaki zuten 1974an.

PQ boterera heltzeak, eta bereziki 1980ko hamarkadan egin zuten kudeaketak, ez die laguntzen CSN eta CEQrekiko harremanei. Zentral hauetako kideen gehiengo zabalaren enplegatzailea den Estatuarekin elkarturik dago alderdia orduan eta kideen erabateko oposizioa eragiten duen soldata austeritate politikak inposatzea erabakitzen du. Erreserbak agertzen baditu ere, garai hartako gobernu subiranistarekin zituen afinitateak baliatzen ditu FTQk, Elkartasun Funtsa sortzea ekarriko duen langileen funtsaren sorrera ahalbidetuko duen lege bat lortzeko.

Hortik aurrera, Quebec-eko mugimendu sindikalean gertatzen diren estrategia partidistei buruzko eztabaidak ez dira mendebaldeko sozial-demokrazia osoan gertatzen direnak gogoratu gabe geldituko. Batzuentzat, PQ da oraindik ere tresnarik eraginkorra kausa nazionala eta langileriaren kausa aldi berean sustatzeko. Gobernu pekisten agintaldi garaian hainbat jendarte aitzinamendu gertatu ahal izatea (soldata ekitatea, lehen haurtzaroko zentroak, guraso aseguruak...), testuinguru neoliberal nagusitzen bazen ere, usu aukera horren egokitasunaren froga gisa aurkezten da. Beste batzuentzat, PQren politikek, boterean dagoenean, birzentratze handiegia eta ezkerrean ibilgailu politiko alternatibo bat sortzeko beharra eragiten dute. Sindikatuetako zuzendaritzak PQrengandik azkarki hurbildu direnean 1995eko erreferendumaren bezperan, Quebec-eko ezker politikoa bateratzeko dinamika bati ekiten dion alderdiak, Lucien Bouchard-en gidaritzapean, asumitzen duen neoliberalismoranzko norabide aldaketak haustura eragiten du ezker sozial eta komunitarioaren zati batekin. 1995ean *Demokrazia Sozialistaren Alderdia* (PDS) bihurtu zen, 1989an NPD federaletik aldendu eta ondoko urtean Quebec-en independentziaren aldeko jarrera hartu zuen NPD-Quebec-ek. Hiru urte berantago, 1998an sortzen da *Alternatiba Politiko baten aldeko Biltzarra* (RAP). Ezkerreko militante soberanisten "ortzadar koalizio" bat izan nahi du RAP-ek. Lucien Bouchard lehen ministroaren austeritate politiken aurka azaltzen da baina hasieran zalantzak baditu PQrekin erabat hausteko alderdi iraunkor berri bat osatzu -bere militante batzuk ere PQn daude, eta ezkerreko bultzatu nahi dute. 1998ko hauteskundeetan PDSk eta RAPk izandako emaitza eskasen ondorioz, azken honek, PDSk aspalditik esplizituki nahi zuen alderdi bat sortzeari ekitera erabakitzen du.

RAPek, PDSk eta *Quebec-eko Alderdi Komunistak* bat egiteko elkarriketak abiatu zituzten 2000. urtean, eta elkarrekin lan egin zuten Paul Clicheren (FRAPeko buruzagi ohia) hautagaitzaren alde, 2001eko hauteskunde partzialetan, Mercier-en barrutian. Cliche-ren emaitza onak, botoen % 24,2 lortu baititu, bat egiteko proiektuan sostengua ekarri dioten hiru alderdiak sendotzen ditu, 2002ko ekainean sortu zen *Indar Progresisten Batasunaren* (UFP) baitan. UFP globalizazio neoliberalaren aurka agertzen da, herri autoktonoen autodeterminazio eskubidea aitortzen du eta independentista, ekologista eta feminista gisa agertzen da. Alderdi unitario berria "*hautetsontzi eta kaleko*" alderdi gisa eraikitzen da, baina emaitza apalak lortzen ditu 2003ko hauteskundeetan, bozen % 1eko heina doi-doi gaindituz.

2003ko hauteskundeak baino hilabete batzuk lehenago, Lehenik Elkar-kide (D'abord Solidaire), Françoise David-ek gidatutako mugimendu komunitario eta feministetako militanteak biltzen dituen batasuna plantan ezarria da. *Quebec-eko Alderdi Liberala* (PLQ), PQ eta *Quebec-eko Ekintza Demokratikoa* (ADQ), hauteslea probintzietako hiru alderdi nagusiek aurrera eraman politika neoliberalen ondorio kaltegarriez jabetzea du helburu. Ezkerreko alderdi berri baten osatzeko pasarela izatea xede duen *Option Citoyenne* (OC) (Herritarren Aukera) sortua izan zen ondoko urtean, esperientzia honen ondorioz. UFPekin bat egiteko negoziazioak hasten dira orduan. Hamar bat prestaketa bilkura egin ondotik (arazo nagusitzat nazioaren gaia zutenak, OCK zalantzak baititu independen-tziaren aldeko jarrera hartzeko), UFP eta OCren bat-egiteak, 2006ko urtarrilean, Québec Solidaire, alderdi ekologista, ezkertiar, feminista, altermundialista eta subiranista sortu zuen.

QUÉBEC SOLIDAIRE: QUEBEC-eko ERREALITATEA NAZIOARTEKO TESTUINGURUAN

Quebec-eko ezker politikoaren berrosaketa eta bateratzea ezin da bene-tan gauzatu harik eta ezker sozialaren zati bat PQtik aldentzen den arte, ezkerreko alternatiba alderdikoi bat garatzeko, 1990eko hamarkadaren bigarren erditik gora. Bereizketa politikoaren aldaketa batean oinarritzen da birlerrokatze hau. Nazioaren gaiak erabakigarria izaten segitzen du, baina desadostasun sozioekonomiko baten adierazpen paralelo eta baieztatuagoa agerian jartzen duen forma berri bat hartuz. Botoen galtze gero eta handiagoa eta eskaintza politikoaren zatitzeaz gain (Bodet eta Villeneuve-Siconnelly, 2020) gertatu desadostasunen bilakaera honen ondorioz argitzen da 2018ko bozketak erabakigarria, multialderdismoaren bultzakada eraginez PLQ-PQ duopoloaren bukaera markatzen duena, *Coalition Avenir Quebec* (CAQ) (*Quebec Etorkizuna Koalizioa*) boterera ekarriz, QSk 10 diputatu lortzen dituenean.

Alderdiek aktiboki parte hartzen dute berrantolaketa politiko horretan, hainbat hamarkadatan. ADQk, eta, ondotik, 2012an absorbatzen duen CAQek eskuineko programa ekonomiko batekin batera nazionalismo identitario bat eramaten dute, subiranotasun-federalismoa bereizketaren eragina ahultzten lagunduz, jarrera autonomista statu quo federalistari kontrajartzen dion beste bereizketa bati lekua egiteko. PQk ere gero eta gehiago lotzen du bere proiektu subiranista nazionalismo identitarioarekin, eta austeritate politika neoliberalen alde jotzen du, eta horrek zuzenean laguntzen du proiektu subiranistaren inguruan zedarritzea lortu zuen ezker-eskuin koalizio handia leherrarazten.

UFP eta haren aurreko osagaiak PQren “zero defizitarekin” lotutako austeritate politiken aurka daude zuzenki. Aldi berean, Françoise David eta François Saillant mugimendu feminista eta komunitarioetako militanteeek 1996ko goi-bilera sozioekonomikoetatik ateratzen dira Lucien Bouchard-ek “zero pobrezia” printzipioa “zero defizitaren” politikarekin bat egiteari uko egin dionean. Davidek azaltzen du lehen ministro pekista horrek berak 2000ko Emazteen Mundu Martxaren aldarrikapenei baiezeko erantzuna emateari uko egiten dionean planteatzen duela LEHENIK solidario bihurtzen dena, eta gero *Herritarren Aukera*, bere kideak ezker sozial, komunitario eta feministakoak direlarik oso zabalki. Ezkerrak PQrekin duen haustura hori ADQren (eta geroago CAQen) eskuineko politiken aurka gauzatzen da. Ondoren, Amir Khadir eta Françoise Davidek, Quebec soli-

dario baten aldeko manifestua idazten lagundu zuten, Quebec argi baten aldeko manifestuari erantzunez, QS sortu baino lehentxeago.

2006an sortu alderdi berriak Quebec-eko sistema partidistaren ezkerrean irekitzen den espazioan jardutea erabakitzen du, baina modu aktiboan moldatzen du ere. Nazionalismo identitarioaren aurka egiten du QSk, PQk independentziaz duen monopolioa hausten du eta lehen agintaldi batean Asanblada Konstituziogile bat aukeratzearen aurka egiten dio René Lévesque-k sortu duen alderdiaren erreferendum estrategiari. QSk ere uko egiten dio PQrekin egin hauteskundeetarako aliantza bati, eta programa sozioekonomiko argi eta garbi ezkertiar eta ekologista bat garatzen du, aldi berean hautesleen zati gero eta handiago baten “on-doeza demokratikoari” ahotsa emanez. Ikuspegi orokor honi esker, QSri lehen diputatu bat, Amir Khadir, Mercier-en hautatua izatea ahalbidetzen dio, 2008an. Françoise David eta Manon Massé Asanblada Nazionallean sartu dira. Azkenean, 2018an, aitzinamendu garrantzitsu bat gertatu da, alderdiak 10 diputatu hautarazten dituenean, horietako lau Montreal-etik kanpoko barrutietan (Quebec, Sherbrooke, eta Rouyn-Noranda). Pascale Dufour-ek laburbiltzen duen bezala, QSren agerpena *“eta 2006. urteaz gozotik izan duen ibilbidea proiektu soberanistaren eraldaketarekin eta Quebec-eko Alderdiaren bitartez izan duen bitartekaritzarekin lotuak dira; iparraldeko beste herrialde batzuetan ezkerreko alderdi politikoen eta inguru aurrerakoien baitan ikusten den mugimendu baten parte ere dira, “politika beste era batera egitea proposatzen duena”.*

Beste demokrazia liberal askoren baitan aurkitzen dira Quebec astintzen duten nahasmendu alderdikoi eta elektoralak. Mendebaldeko European zehar, Ipar Amerikan bezala, hautesleen aldakortasuna eta eskaintza politikoen zatikatzea areagotu dira, eta horrek aldaketa berriak eragiten ditu. Ford-ek eta Jennings-ek azpimarratzen duten bezala, horiek bereziki hunkitzen dituzte migrazioaren eta nortasunaren aldeko erronkak, ekologikoak, edo eskualdeen arteko ezberdintasunei edo desberdintasunen hazkundeari (hazten ari diren hiriguneak vs landa-eskualdeak eta desindustrializatuak), eta berez lotuak daude ekonomia kapitalista eta industrial aurreratuen gaur egungo mutazioekin.

Aldaketa horrek alderdi berriek baliatzen dituzten aukerak ematen ditu, zentro-ezkerreko eta zentro-eskuineko gobernu-alderdiei ematen zaien babesa apaltzen den bitartean. Joera ekonomiko garaikideen ondorioak jasaten dituen hautesleriaren zati batek zentro-ezkerreko alderdiak abandonatzen ditu, migrazioaren areagotzearen aurrean nazionalismo identitarioa hedatzen duten eskuin erradikaleko alderdien mesedetan.

Hauteskunde birlerrokatze hori, gainera, alderdi sozialdemokraten programa sozioekonomikoen birzentralizazioarekin lotua da, neoliberalismoaren eraginpean, 1980ko hamarkadan hasi eta hurrengo hamarkadan bizkortzen dena. Aldi berean, alderdi sozialdemokratak beren base tradizionala osatu zuten sindikatuetatik urruntzeko joera dute. Zentro ezkerreko alderdiek eskuinera jotzeko egin bihurgune horrekin batera, 1980ko hamarkadatik aurrera, batez besteko hauteskunde euskarria erori egin zen – 90 eta 2000ko hamarkadetan, beherakada hori areagotu zen.

Autore ezberdinak ohartu dira alderdi sozialdemokratei ematen zaien sostenguaren apaltze horrek espazio bat sortzen duela haien ezkerrean. Gune horietan sortu ziren *Ezkerreko alderdi Berriak* (Nouveaux Partis de Gauche, NPG), batzuetan “ezker erradikalaren” alderdi gisa izendatuak, 1990eko hamarkadaz geroztik. Izan ere, hautesleen zati handi bat sozialdemokrata etsituek osatzen dute.

Mendebaldeko herrialde gehienetako sistema alderdikoietan haien pisua txikia den arren, herrialde batetik bestera asko aldatzen da, eta gaur egun Berlingo harresia erori zenetik izan duen mailarik handienera da. NPG batzuek hauteskundeetan aitzinamenduak egiten dituzte, ikaragarriak batzuetan, 2008ko krisi ekonomikoaz geroztik, batez ere Grezian, Espainian, Portugalen eta Herbehereetan. Alderdi komunistentzat 1989a baino lehen askoz gutxiagotan gertatzen bazen ere, “ezkerraren ezkerrean” kokatutako alderdi horietatik 17k Europako gobernuetan parte hartzen dute, edo sostengua ematen diete boterea erabiltzeko, 1990etik 2012ra. Alderdi horietako bik koalizio gobernuak zuzendu dituzte Grezian eta Zipren azken urteetan.

NPGek, ezker muturreko erakunde txikiak eta militante maoista edo troskista ohiak biltzen dituzte batzuetan, hainbat jendarte mugimendutako militanteekin koalizioan lan egiten dutenak, hain sektarioa ez den antolaketa esparru berri baten baitan, eta, beraz, 1970eko hamarkadako ezkerreko alderdi batzuk baino malguagoak eta ez hain homogeneoak dira maila ideologiko eta programatikoan. Ideologikoki hain zurruna ez den izaera horrekin batera, pragmatismo handiagoa eta kontzientzia zorrotzagoa daude komunikazio eta hauteskunde estrategia landuago baten garrantziaz jabetzen dira. Mugimendu altermundialistaren eraginez, kideen inplikazio aktiboa ahalbidetzen duten antolaketa praktika demokratikoak hartzen dituzte, NPG horiek.

Kapitalismoaren kritika moderatua egiten dute NPGek eta bat egiten dute neoliberalismoaren aurkako jarrera markatuago batera joz. Siste-

maren eraldaketa sakonak bilatzen dituzte, jarrera iraultzaile bat hartu gabe haatik. Altermundialista, internazionalista eta antiarrazista da haien eskaintza programatikoa. Ekologistak eta feministak dira ere alderdi hauek, LGBTQ pertsonen eskubideak babestuz aldi berean.

Jendarte mugimenduekiko harremanak garatzea helburu duten kanpainak bultzatzen dituzte erregulariki alderdi berri horiek, haien oinarria sendotzeko, arduradunak eta militanteak formatu eta errekrutatzeko, eta sostengatzen dituzten politiken aplikatzea lortzeko. Oro har, jendarte mugimenduen beheranzko eta kooptaziozko harremana saihestez grinatsu dira, lankidetzarako lotura goranzkoak eta demokratikoak ezartzeari lehentasuna emanez. Alderdi sozialdemokratek sindikatuekin duten disoziazio progresiboa baliatzen saiatu dira ere NPGak azken horietara hurbiltzeko, baina gehienetan arrakasta mugatuarekin.

QUÉBEC SOLIDAIREN AGERTZEA ETA SENDOTZEA

Bere berezitasunak dituen ezkerreko alderdi berri bat eraikitzeko esperientzia bat da Quebec Solidaire (batez ere gai nazionalari eta konstituzionalari lotuak), baina deskribatu berri dugun nazioarteko mugimenduan ere argi eta garbi kokatzen dena. Sistemaren sakoneko eraldaketak goraki eskatzen ditu QS-aren programak, eta *“kapitalismoa epe luzera gainditu nahi du”*, baina alderdiak sektore pribatuari bide emango dion *“ekonomia anitza”* ere proposatzen du. Neoliberalismoaren aurkakoa da alderdia, bai eta feminista eta antiarrazista, eta, Batzar Konstituziogile baten hautaketaren bitartez, erakunde politikoen demokratizazioa helburu duen estrategia independentista proposatzen du.

Europako NPG kopuru handi baten gisara, malgutasun ideologikoa erakusten du QS (bereziki bere baitan kolektibo antolatutako egotea ahalbidetuz), troskista eta maoisten militante ohiak biltzen ditu (horietako askok funtsezko papera jokatu zutelarik alderdiaren eraikuntzan), eta 1960ko eta 1970eko hamarkadetako ezker muturreko sektarismoetik urruntzen da argi eta garbi. Alderdiko hauteskunde programak eta plataformek proposamen zehatzak aitzinera ekartzen dituzte, eta bere hauteskunde aparatuen garapena eta komunikazio arloko gaitasun handiago baten alde lan egiten du gehiago QS, agitazio ideologiko baten alde baino. Mugimendu altermundialistaren eraginez, Quebec-eko alderdi politiko nagusiak baino demokratikoagoa den erakunde mota bat ere garatu du QS, besteak beste, zuzendaritza modu kolegiatu batean gorpuzten dena – 14 kidez osatutako Koordinazio Kontseilu Nazional batekin, horietako bi bozeramale izanez, nagusiki buruzagi batek hartu zuzendaritza bat baino.

Beste antzekotasun garrantzitsu bat NPGekin: *“hautetsontzietako eta kaleko”* alderdi gisa aurkezten da QS, hau da, alderdiak nahi du bere lan elektorala parlamentuz kanpoko mobilizazioetan inplikatur ere osatzea. QS, beraz, mugimendu sozial eta sindikalen bozgorailua izan nahi du hauteskunde eta parlamentu esparruan, eta, aldi berean, *“korronte politiko eta sozial ezberdinek bat egiten duten lekuan kokatzeko hautua egin nahi du, eta haiengandik eragina izan”*. Eztabaidak badira, ordea, gizarte-mugimenduekiko harremana eraiki beharreko moldeaz eta horrek zer praktika ekarri behar dituen, baina gehienetan alderdiaren paraleloan

(formalki lotu gabe) garatu diren argitalpenetan esku hartzeko modua hartzen dute, instantzia formaletan baino gehiago³).

QS sortu eta gutxira, aldiz, bere Batzorde Politikoaren ebazpen proiektu batek (programaren ekoizpena, gogoetarako dokumentuak eta proposamenen ekoizpena koordinatzen dituen) mugimendu sozialekin eta mugimendu sindikalarekin loturak garatzeko beharra aldarrikatzen zuen, bereziki mugimendu horietan ari diren alderdiko kideak saretzera animatuz, bertan kolektiboki aritzeko. Ebazpenak azpimarratzen zuen mugimendu sindikalarekiko loturen garrantzia, Quebec-eko ezkerren funtsezko sektore gisa, baina ez zuen berehalako eraginik izan alderdian. Sortu eta kasik hamarkada batera, sare militanteak sortu ziren QSren baitan (*Sare Intersindikala eta Sare Militante Ekologista*), eta alderdiko aginteek modu formalean onartu zituzten, bere oinarriko ekimenen ondorioz. QSk zuzendaritzak, ordea, baliabide eta energia gutxi bideratzen ditu sare horien jardueretara, eta harreman hertsia du *Sindikatu arteko Sarearekin*. Hori gertatzen da, besteak beste, mugimendu sozialak eta mugimendu sindikala kanpotik kontrolatzeko “entrismo” bat egitea leporatzen zaielako bere kideei, eta alderdiaren hauteskunde-jarduerak gero eta gehiago lehenesten direlako.

Mugimenduen kooperazio salaketen beldurrez, QS eta erakunde sindikalen arteko aliantza “goitik behera” nahi du Amir Khadir-ek, eta hauen zuzendaritzari eskatzen die jabetzea haien autonomia zaintzeko borondatea ez litzatekeela neutraltasun politikoaren sinonimo izan behar. Bere ustez, autonomia horrek esan nahi du, hain zuzen ere, zein alderdi politikoren alde egitea merezi duen askatasun osoz aukeratu behar dela, eta aukera aske horrek PQtik aldentzea ekarri beharko lukeela, QSra hurbiltzeko. Simon Tremblay-Pepin, ibilbide luzeko militante eta QSk hautagaiak, “entrismoaren” alternatiba izan nahi duena ere proposatzen du, baina oraingoan alderdiaren oinarriarentzako paper aktiboa mantenduz. Kanpoko mobilizazioen alde egin edo mugimenduetan esku hartu baino gehiago, bertan jarduten duten alderdikideen alde eginez, QSk bere baliabideak erabili beharko lituzke bere kideak zuzenean inplikatzeko dituzten mobilizazio kanpainak abiarazteko, ez bakarrik sentsibilizazio lan bat eramateko, baizik eta helburu zehatz batetik abiatuz irabazi zehatzak lortzeko. François Saillant-en iritziz, parlamentuz kanpoko jardueren ikuspegi hori du bere egin QSk azken urteetan, gobernu kakista energia

³ Ikus horretarako Presse-toi à gauche! (<https://www.pressegauche.org/>) eta Cahiers du socialisme (<https://www.cahiersdusocialisme.org/>) guneak.

berriztagarrietarako trantsizio plan sinesgarri bat lortzera behartu nahi zuen *Ultimatum 2020* kanpaina martxan jarriz, besteak beste.

Bere eztabaida eta esperientzia praktikoen bitartez, gizarte mugimenduekin eta mugimendu sindikalarekin duen harremana modulatu nahi du beti QSk. Mugimenduekiko harreman horrek ekar ditzakeen zailtasunen erakusle dira Arrazismoaren aurkako borrokarekin eta mugimenduarekin zerikusia duten erronken inguruan QSk *Kolektibo Antikolonialaren* eta alderdiaren zuzendaritzaren arteko tirabirak, bereziki barne bizitza demokratikoari dagokionez, baina baita alderdiaren barruan antolatu kolektiboen botere eta erantzukizunei dagokienez ere.

QUÉBEC SOLIDAIRE ETA SINDIKALISMOA

PQren bilakaera eta Quebec-eko ezkerrean izan zituen eraginak, QSren sorrera barne, ez ziren ondorio makalak izan mugimendu sindikalaren posizionamenduan eta estrategia politikoetan. PQ berriz ezkerrean eramateko eta bere sostengu sindikalekin bat egiteko ahaleginak egin ziren. Horrela sortu zen 2005ean Quebec libre baten aldeko *Sindikalista eta Aurrerakoien Kolektiboa* (SPQ Libre), PQk bere baitan klub politikoak baimentzeko erabakia baliatu zuelarik. Han ziren, besteak beste, Marc Laviolette, CSNko presidente ohia, baita, urte berean, kolektiboaren sostenguarekin, alderdiaren buruzagitza hartzeko gogoia erakutsiko duen Pierre Dubuc ere, baina ez zuen beharrezko zen botoen % 2a lortu. Esperimentzia laburra izan zen, 2010ean SPQ Libre PQtik kanpo gelditu baitzen, alderdiak klub politikoen printzipioa bertan behera utzi baino lehen.

CSNko presidente izan diren beste pertsona batzuk ere inplikatu dira kausa soberanista sostengatzen duten erakundeetan, eta haren aldeko koalizio zabalak sortu nahian. Gerald Larose, CSNko lehendakaria 1983tik 1999ra, Subiranotasunaren Kontseiluko lehen presidentea izan zen, eta Claudette Carbonneau, CSN-ko burua 2002tik 2011ra, Quebec-eko Independentziarako Erakunde batuen (OUI Quebec) buru izan zen. CSN-k, PQ-rekiko FTQ-k duen jarrera baina urrunagoa izateak ez du esan nahi, beraz, korrante nazionalista ez dela hain aktiboa.

Hala ere, FTQren eta PQren arteko aspaldiko aliantza ere kolokan egon zen 2000ko hamarkadan. FTQk PQri sostengua adierazi zion azken hauteskundeak 2007koak izan ziren. Orduan, André Boisclair-ek zuzentzen zuen alderdia, baina espresuki adierazi zuen PQ sindikatuetatik bereizteko asmoa. Hala ere, zentralak uste zuen alderdi soberanista zela oraindik alternatibarik onena, bai Jean Charest-en PLQren aurrean, 2003az geroztik sindikatuek kontra zituzten hainbat neurri hartu baitzituen, bai diskurtso antisindikala erradikalizatuagoa zuen Mario Dumont-en ADQren aurrean ere. Azkenean, azken hau izango da liberalen oposizio ofiziala, bereziki André Boisclair-en abiatzea eraginez. Hortik aurrera, FTQren estrategia, Quebec-eko hauteskunde kanpainetan, CSNren antzekoa izaten hasi zen: erakundearen lehentasunak aitzinera ekartzen zituen plataforma bat hartzea, eta kideak eta hautesleak gonbidatzea, oro har, jarrera horiek lehian dauden alderdi nagusienekin alderatzera eta konparazio horren arabera aukeratzera. 2008ra arte arreta berezia eskaini zitzaion ADQz gain, Alderdi Liberala izan zen mugimendu sindikalaren arerio nagusia, bereziki 2012ko *Astigar Udaberriaren* ondorioz. CAQen gorakada,

ADQ irentsi eta bere programako hainbat elementu integratu baditu ere, ez da zentralen lehentasunen artean jarria izan.

2018ko hauteskunde orokorrak ongi irudikatu zituen estrategia horiek. FTQren aldetik, azken urteetako borroka islatzen dituzten lehentasunak ezarri zituen plataforma bat onartu zen: gutxieneko soldata orduko 15 dolarrera igotzea, sendagai-aseguru unibertsal bat sortzea, zerbitzu publikoen balioa handitzea edota trantsizio ekologikoa. Asanblada Nazionalen ordezkariak duten lau alderdiengana hurbildu zen ondotik zentrala, konpromiso horiekin zenbateraino bat egiten zuten ikusteko. Emaizta argia izan zen: PQk eta QSk aldeko erantzuna eman zieten aldarrikapen guztiei kasik, eta CAQ eta PLQ, berriz, kontra agertu ziren. Ordu arte karguan zen gobernuaren balantze oso hitsa agertu zuen aldi berean, kideak Liberalak ez sostengatzera argiki bultzatzeko beraz.

CSN-k bere aldetik 2017an egin zuen kongresua baliatu zuen 2018ko hauteskundeetan egingo zituen hitzaldien oinarria izango zen manifestu bat onartzeko). Bertan, FTQk aurrera eramandako gaien antzekoak agertzen dira, batez ere enplegu eta soldatekin, zerbitzu publikoekin, garapen iraunkorarekin eta demokraziarekin lotutako erronken inguruan. Ondoren, eskualde kontseiluen esku utzi zuten plataforma hori tokiko aldarrikapenekin aberastu eta alderdi ezberdinetako ordezkariekin topaketak antolatzeke ardurak, tokiko hautagaiek erakunde sindikalaren eskaerei buruzko iritzia eman zezaten herritarren aurrean.

Izan ere, eskualde egiturak dituzte CSNk bezainbat FTQk ere, eta horiek eremu geografiko bereko tokiko sindikatuak biltzen dituzte, haien jarduera sektorea edozein izanik ere. FTQren Eskualde Kontseiluen eta CSNren kontseilu zentralen mugek Quebec-eko hamazazpi eskualde administratiboak bateratzen dituzte hein handi batean. Erakunde horiek bereziki interesgarriak dira mugimendu sindikalaren inplikazio politikoa aztertzeke. Lanbide arteko egitura gisa, ez dira zuzenean inpliketzen negozioaz kolektiboan; aitzitik, tokiko sindikatuen arteko solidaritateak garatzeko kargua dute, bai eta zentralaren ordezkariak politikoa ere, toki eta eskualde mailan. Bi zentralen kontseiluen arteko desberdintasun nabarmena da tokiko sindikatuak CSNren kontseilu zentraletan afiliazioa (eta kide kopuruaren arabera kotizazioa ordaintzea) nahitaezkoa dela, FTQn borondatezkoa denean. Horrek finantza egonkortasun handiagoa eta jarduteko gaitasun erlatiboki handiagoa ematen die CSNko kontseiluei. FTQko kontseiluek, berriz, beren denboraren zati bat eman behar dute afiliatuak bilatzen eta tokiko sekzioak haiekin bat egiteko konbentzitzen. CSNn zein FTQn, kontseiluek halako autonomia politikoa maila bat

dute (zentral bakoitzaren funtsezko balio eta printzipioen barruan), eta, besteak beste, hauteskunde orokorretarako hautagaitzak sostengatzen ahalko lituzkete. CSNn ere, zentralak alderdi bat bera ere ez babestea nahi duen araua ez zaie aplikatuko bere erakunde afiliatuei, kontseilu zentralak barne.

CSNko hiru kontseilu zentraletan eta FTQko bi eskualde kontseilutan egindako inkestak dio, hala ere, oso gutxitan baliatzen direla abantaila horretaz Montreal-etik kanpo. Hauteskunde orokor batean eskualdeko kontseilaria hautagai gisa bitan aurkeztu zen FTQ kontseilu baten kasuan, honek uko egin zion kontseiluaren sostengua eskatzeari, alderdirik babesten ez zuen zentralaren eta eskualdeko kontseiluaren (10. elkarriketa) artean tentsiorik ez sortzeko. Eskualdeko CSNren kontseilu zentral baten kasuan, eskualdeko bi barrutitan, bi alderdi desberdinetako bi hautagaitza sostengatzea erabaki zuen kontseiluko exekutiboak bozketa federal baten ondorioz. Hala ere, Kontseiluaren Batzar Nagusiak proposamena atzera bota zuen, hainbat ordezkari adierazi baitzuten CSNk, zentral edo kontseilu gisa, ez ziela esan behar kideei nola bozkatu behar zuten (20. elkarriketa).

Egoera nahiko desberdina da Montreal Metropolitarrak eskualdean, CSNko kontseiluak eta FTQkoak autonomia politiko tradizio handiagoa bertan garatu baitute. Hauteskunderi dagokienez, Montreal Metropoliko FTQ kontseiluak bere sostengua eskatu nahi duten hautagaiak hartzen ditu biltzar nagusian. Gehienetan, kontseiluko tokiko sekzioetako kideak dira, eta historikoki, funtsean, PQren izenean aurkeztu diren hautagaiak izan dira. Hala ere, azken hamarkadako hauteskunderetan, Montrealgo FTQ sindikatuetakako QSk hautagai batzuek kontseiluaren sostengua eskatu eta lortu zuten. Horietako bat 2018ko hauteskunde orokorretan hautatuak izan diren diputatu berrien taldekoa da (14 eta 15. elkarriketak).

Hala ere, CSNren *Montreal Metropolitarrako Kontseilu Nagusia* (CCMM) da bizitza alderdikoian gehien inplikaturako erakunde sindikala, batez ere QS-ren sorrerarekin lotuta. CCMM-k ez ditu bakarrik hautagaitzak sostengatzen hauteskunde orokor edo lokaletan (horrela gogoraraziz lehen aipatu dugun FRAPean duen inplikazioa), QSren sorrera ere esplizituki bultzatu eta lagundu baitzuen aldi berean. Horrela, 2001eko biltzarretik aitzina, "*Kontseilu Nagusiaren norabide sindikal eta sozialei dagozkien ezkerreko alternatiba politiko baten eraketa eta garapena aktiboki babesten du, hurrengo probintzia eta udal hauteskunderetan hori sustatu eta babesteko helburuarekin*". Bere 2004ko biltzarrak eskatzen du

“Kontseilu Zentralak aktiboki parte har dezan ezkeraren baitan sortzen diren eztabaidetan, bereziki l’Union des forces progressistes eta D’abord Solidaires-etik datorren taldean, politika alderdikoaren aukera bultzatuz”, eta 2007koak “Quebec-eko programa solidarioa babesten du, Kontseilu Zentralaren orientabide sozial eta sindikalekin bat datorren heinean”, nahiz eta aitortu “Québec Solidaire erakunde politikoa dela, alderdi tradizionaletik benetako haustura erakusten duena eta kideak bere baitan militatzera gonbidatuz”. CCMMren eta QSren arteko hurbiltasun hori agerian geratu zen, halaber, kontseilu nagusiko hautetsi ohi bat alderdiko idazkari nagusi bihurtu zenean. Nahi izan du hala ere, bere bi agintaldiak ez gainjartzea, kargu sindikalaren eta politikoaren artean nahasmendurik ez sortzeko (19. elkarrizketa).

Montreal eta Quebec-eko gainerako eskualdeen arteko kontraste hori egiaztatu da ere, CSNko hiru kontseilu zentraletako (Montreal metropolitarrak, Outaouais, Abitibi-Témiscamingue – Ipar-Quebec) kongresuetako ordezkariak 2019an egindako inkestan. Hiru urte guzietan antolatzen dira Kontseilu Nagusien kongresuak (urte berean kontseilu guztietarako), eta tokiko sindikatu afiliatu bakoitzetik datozen ordezkariak biltzen dituzte. Beraz, erakundearen dinamikak behatzeko une pribilegiatuak dira, eta ez dira zuzendaritza organoetara bakarrik mugatzen. Delegatuen kidesun alderdikoia, besteak beste, parte-hartzaile guztiei emandako galdetegi batean jorratu zen. Erantzunen arabera, erakunde sindikalen eta QSren arteko lotura historikoei buruz lehenago egindako konstatazioak erkatzen dira, Montreal-en Quebec-eko beste lekuetan baino hurbiltasun askoz handiagoarekin.

Erantzunak galderari:

“Quebec-eko politikan diharduten alderdi politiko horien artean, zeinengandik sentitzen zara hurbilen?”

CSNko Kontseilu Nagusien 2019ko kongresua

	Coalition Avenir Québec (CAQ)	Parti libéral du Québec (PLQ)	Parti québécois (PQ)	Parti vert du Québec (PVQ)	Québec Solidaire (QS)	Beste alderdi politiko bat	Inor ez
Abitibi-Témiscamingue Nord-du-Québec	%0	%3	%27	%6	%21	%0	%42
Montréal métropolitain	%6	%5	%18	%2	%46	%0	%22
Outaouais	%8	%4	%14	%0	%22	%0	%52

Montrealen eta Outaouaisen identifikatutako alderdi politikoetan lehen QS dela ohartzen gara. Dena den, babesa askoz handiagoa da metropoliari. QS bigarren izatera besterik ez da iristen Abitibi-Témiscaminge-n, 2018ko bozketan Montrealetik kanpo QSren lehen diputatuetako bat aukeratu zuenean eskualdeak. Azkenik, azpimarratzekoa da delegatuen kopuru handi batek ez duela bere burua alderdi politiko probintzial batean ere ez kokatzen, eta hau bereziki eskualdeko kontseilu zentraletan.

ONDORIOA

Artikulu honek Quebec-eko ezkerren azken aldakuntzei buruzko lehen azterketa bat proposatu du, eta bereziki alderdi eta sindikatuen arteko harremanaren bilakaerari buruzkoa. Bilakaera ulertzen da, bai erakunde sindikalek, eta bai sortzen ari den ezkerreko *Québec Solidaire* alderdiak, alderdien eta sindikatuen arteko harremanaz duten ikuspuntua kontutan hartuz, eta hau Quebec-eko sistema partidistaren eraldaketa sakon batek markatutako testuinguru batean, 2018ko hauteskunde probintzialen argitan. Ekonomia politikoaren ikuspegi kritiko batetik lantzen da osotasuna, alderdi eta mugimendu sindikalen “politikaren” eta “sozialaren” arteko erlazioa eta erakunde partidista eta sindikalen artean, horrek eragindako prozesu, gogoeta eta tentsioak problematizatzen dituena. Testuinguru historiko batean (sindikatuak PQrekin eta NPDrekin duten harremanaren bilakaera) eta espazio zabal batean (Europako Ezkerreko Alderdi Berrien bilakaera) kokatzen da azterketa, urruntasun konparatibo bat ahalbidetzeko eta gure aztergaiaren bilakaera berria hobeki mugatzen laguntzeko, Quebec-eko testuinguru garaikidean.

Emaitzak abiapuntua besterik ez dira oraindik eta sakondu egin behar da. Mugimendu sindikalaren atal bakar bati eskainia zaio azterketa, eta oraingoz Quebec-eko hiru eskualdetan baizik ez dira bilduak izan aurkeztutako datuak. Azterketa sakon bat egiteko, sindikatuen mugimenduen estaldura zabalagoa eta sakonagoa burutu beharko da, baina, era berean, ikerketaren datuen bilketa alderdietara zabaldu beharko da ere, *Québec Solidaire*-ko eragileekin elkarrizketak eginez, besteak beste. Abiapuntu badira ere, etorkizuneko beste ikerketa batzuetarako lan-hipotesi gisa erabil daitezkeen zenbait ondorio proposa daitezke.

Oro har, eta praktikan, QSk agertzen duen NPGen mugimendu sozial eta sindikalekiko harremana maiz estu gelditzen da. Alderdi horiek hartutako “estrategia bikoitzarekin” lotutako dilema da horren arrazoia. Batetik, boterera hurbiltzen saiatzen dira, beren sinesgarritasuna gobernu arduratsuen alderdi potentzial gisa eraikitzen saiatuz, zentro-ezkerreko hautesleria erakartzeko, eta, bestetik, oposizioko alderdi gisa eraikitzen saiatzen dira parlamentuz kanpoko borroka bazter nahasleen bidez, instituzioek desilusionatutako eta alderdi politikoetan bere burua kokatzen ez duen biztanleriaren zatiaren sostengua lortzeko. Dilema horren ondoriozko zailtasunen erakusgarri da, NPGek koalizio gobernuetan parte hartzeak edo laguntzeak, askotan hauteskunde sostenguak erortzea eta gizarte mugimenduetatik aldentzea dakarrela, alderdi horiek zuzen-

nean edo zeharka austeritate-politikak gauzatzen parte hartzen duten bitartean, eta, horrela, sinesgarritasuna galtzen dutela oinarrien aurrean. Honek gogorarazten digu NPDeK Kanadako hainbat probintzian azken hamarkadetan eratutako gobernu ezberdinen esperientzia.

QSk gaur egun hedatzen duen estrategiak, alderdiak parlamentuz kanpoko kanpaina propioak abiaraztea eta alderdikoak ez diren erakundeen mobilizazioekiko distantzia pixka bat mantentzea ekarriz, agian, alderdiarentzat garrantzitsua izaten jarraitzen duen arazo bat konpontzea baino gehiago honen saihestea du helburu. Sortu zenetik, alderdiaren garapenerako erronka bat da erakunde sindikalekin harreman sendoago bat ezartzea, besteak beste. Horrek eragina du QSren hauteskunde garapenean eta parlamentuz kanpoko garapenean. Lehenik eta behin, QSk bultzatutako kanpainak masifikatzeko eta irabaziak lortzeko zailtasuna planteatzen da, Quebec-eko gizartean askoz ere handiagoa eta estrategikoki kokatuagoa den mugimendu sindikal batera hurbildu ezean. Gero, ezkerreko alderdi baten sinesgarritasun elektoral eta programatikoaren arazoa planteatzen da, oraindik gehiengoaren babesa lortzen ez duen mugimendu sindikal baten boz eramailea izan nahi baitu.

Sindikalismoak, bere aldetik, berriz ere erakutsi du ez dela eragile simple edo uniforme. QSren eta bere azken arrakasten aurreko jarrera, zentralen arabera ez ezik, zentralen baitan ere aldatzen da, hauetan kontraste garrantzitsuak ikusten baitira kokapen geografikoaren edo erakunde motaren arabera, besteak beste. Azaldu ditugun aurretiazko datuak ikusirik, badirudi QSri adierazi sostengua askotan inplikazio politiko aktibora bideratuagoak diren metropolia eskualdean eta egitura sindikal interprofesionaletan biltzen dela. Bestalde, delegatuen eta haien erakundeen arteko jarreraren aldeak berresten du egitura sindikal bat bideratzeak ez duela bermatzen, nahitaez, afiliatuen atxikimendu masibo edo gehiengoarena lortzea. Talde baten posizioa talde horren baitan dauden joeren isla bada, eta, horren truke, nolabaiteko eragina badu kideengan, dena den, egokitasuna ez da perfektua izango, eta ez dago gehiengoaren erabakiarekin bateratzerik.

Era berean, ideia horren arabera, sindikatuek alderdiekin duten harremana biziki estrategikoa da. Izan ere, azken hauek ez dute alderdien "beharrik" beren programa politikoa zehaztu edo gidatzeko. Jendarte eztabaida zabalak sortzen dira erakunde sindikalen barnean bertan, eta erakunde horiek beren aliantzei buruz gogoeta egiten dutenean eremu alderdikoian, kidesun ideologikoak eta eraginkortasun politikoa uztertzea da benetako xedea. Zentzu horretan, "*hautetsontzien alderdiak*";

gutxienez, “kalekoak” bezainbesteko balioa du langile mugimenduaren gogoeta estrategikoetan.

Azken batean, PQ ez bada gehiago jaun eta jabe, izan ahal den gisara, Quebec-eko espazio aurrerakoian, batez ere erakunde sindikalen baitan, agerikoa besterik ez da ohartzea hegemonia berririk ez dela marratzen hemendik edo handik. Badirudi sostengu sindikalen aniztasuna eta autonomia beharrezkoak direla eta QSri hainbat sektoreengandik babes zabala adierazten bazaio ere, alderdi politikoaren eta mugimendu sindikalen arteko artikulazioaren erronkak bere horretan dirau.

BIBLIOGRAFIA

- Agence-QMI, 2012 “La FTQ n’appuie aucun parti, son président explique”, Le Journal de Montréal, abuztuaren 31. [<https://www.journaldemontreal.com/2012/08/31/la-ftq-nappuie-aucun-parti-son-president-explique>], 2021eko abuztuaren 2an kontsultatua.
- Bale, Tim eta Richard Dunphy, 2011 “In from the Cold? Left Parties and Government Involvement since 1989”, *Comparative European Politics*, 9, 3 : 269-291.
- Bélanger, Éric eta Jean-François Daoust, 2020 “A Night To Remember: Perspectives On The Watershed 2018 Quebec Election”, *French Politics*, 18, 3: 213-220.
- Black, Simon, 2012 “Community Unionism and the Canadian Labour Movement”, Stephanie Ross eta Larry Savage (zuz.), *Rethinking the Politics of Labour in Canada*, Halifax eta Winnipeg, Fernwood, 146-158. or.
- Blais, André, 2002 “Why is there So Little Strategic Voting in Canadian Plurality Rule Elections?”, *Political Studies*, 50, 3 : 445-454.
- Bodet, Marc André eta Katryne Villeneuve-Siconnelly, 2020 “Effective support and electoral dynamics in Quebec”, *French Politics*, 18, 3 : 221-237.
- Collombat, Thomas eta Mona-Josée Gagnon, 2003 “Le syndicalisme québécois face à la résurgence d’une droite antisindicale”, IRES-eko nazioarteko kronika, 83 : 9-23.
- Collombat, Thomas eta Yanick Noiseux, 2016 “Le syndicalisme est-il un groupe de pression?”, Jean-Patrick Brady eta Stéphane Paquin (zuz.), *Interes taldeak eta jendarte mugimenduak, Québec*, Presses de l’Université Laval, 105-130 or.
- Collombat, Thomas, 2018 “Les organisations syndicales régionales peuvent-elles être des passerelles entre le mouvement ouvrier et le mouvement populaire?”, *Nouveaux Cahiers du socialisme*, 20 : 51-59.
- Conseil central du Montréal métropolitain-CSN (CCMM-CSN), 2016 *Montreal Metropolitanoko-CSN Kontseilu zentralaren kongresuetan adostu ebazpenen bilduma, 1979tik 2013ra*. [<https://www.ccmm-csn>].

- qc.ca/recueilresolutionscongresccmm1979-2013-final-corr/], 2021eko abuztuaren 2an kontsultatua.
- Confédération des syndicats nationaux (CSN), 2018 En route vers l'élection québécoise. [<https://www.csn.qc.ca/electionquebecoise/>], 2021eko abuztuaren 2an kontsultatua.
 - Daoust, Jean-François eta Alexandre Jabbour, 2020 "An extraordinary election? A longitudinal perspective of the Québec 2018 election", *French Politics*, 18, 3 : 253-272.
 - Denis, Serge, 2003 *Social-démocratie et mouvements ouvriers : La fin de l'histoire?*, Montréal, Boréal.
 - Ducange, Jean-Numa, Philippe Marlière eta Louis Weber (zuz.), 2013 *La gauche radicale en Europe, Vulaines sur Seine*, Éditions du Croquant.
 - Dufour, Pascale, 2009 "From Protest to Partisan Politics: When and How Collective Actors Cross the Line ? Sociological Perspective on Québec Solidaire", *Canadian Journal of Sociology*, 34, 1 : 55-82.
 - Dufour, Pascale, 2012 "Québec solidaire : Au-delà du tiers parti, une transformation majeure du paysage politique québécois", dans : Réjean Pelletier (zuz.), *Les partis politiques québécois dans la tourmente : Mieux comprendre et évaluer leur rôle*, Québec, Presses de l'Université Laval, p. 343-360.
 - Dufour, Pascale eta Éric Montigny, 2020 "À l'occasion des 50 ans du Parti québécois : Comment le déclin d'un parti nous renseigne sur les transformations politiques et sociales d'une société?", *Politique et Sociétés*, 39, 3 : 3-17.
 - Edelman, Bernard, 1993 *La légalisation de la classe ouvrière*, Paris, Christian Bourgeois.
 - Eidlin, Barry, 2018 *Labor and the Class Idea in the United States and Canada*, Cambridge, Cambridge University Press.
 - Evans, Bryan M., 2012 "The New Democratic Party in the Era of Neoliberalism", dans : Stephanie Ross eta Larry Savage (zuz.), *Rethinking the Politics of Labour in Canada*, Halifax et Winnipeg, Fernwood, p. 48-61.
 - Fidler, Richard, 2012 "Québec Solidaire : A Québécois Approach to Building a Broad Left Party", *Alternate Route*, 23 : 147-174.

- Ford, Robert eta Will Jennings, 2020 “The Changing Cleavage Politics of Western Europe”, *Annual Review of Political Science*, 23, 1 : 295-314.
- FTQ-Eraikuntza, 2007ko probintzietako hauteskundeak: Quebec-eko alderdia sostengatzen du FTQ-k. [<https://ftqconstruction.org/general/elections-provinciales-2007-la-ftq-appuie-le-parti-quebecois/>], 2021eko abuztuaren 2an kontsultatua.
- Quebec-eko langileen federazioa (FTQ), 2018, 2018ko probintzietako hauteskundeak: FTQ-ren plataforma. [<https://ftq.qc.ca/elections-quebec-2018/>], 2021eko abuztuaren 2an kontsultatua.
- Gagnon, Mona-Josée, 1991 “Le syndicalisme: du mode d’appréhension à l’objet sociologique”, *Sociologie et sociétés*, 23, 2 : 79-95.
- Gagnon, Mona-Josée, 2003 “Syndicalisme et classe ouvrière. Histoire et évolution d’un malentendu”, *Lien social et Politiques*, 49 : 15-33.
- Gethin, Amory, Clara Martínez-Toledano, C. eta Thomas Piketty (zuz.), 2021 *Clivages politiques et inégalités sociales : Une étude de 50 démocraties, 1948-2020*, Paris, Gallimard et Seuil. (Hautes études)
- Graefe, Peter, 2012 “Québec Labour: Days of Glory or the Same Old Story?” dans : Stephanie Ross eta Larry Savage (zuz.), *Rethinking the Politics of Labour in Canada*, Halifax et Winnipeg, Fernwood, 62-74. or.
- Hyman, Richard, 1975 *Industrial Relations: A Marxist Introduction*, Basingstoke, Macmillan.
- Jansen, Harold J. eta Lise Young, 2009 “Solidarity Forever? The NDP, Organized Labour, and the Changing Face of Party Finance in Canada”, *Canadian Journal of Political Science*, 42, 3 : 657-678.
- Keith, Daniel, 2018 “Radical Left Parties and Left Movements in Northern Europe”, dans: Magnus Wennerhag, Christian Fröhlich eta Grzegorz Piotrowski (zuz.), *Radical Left Movements in Europe*, Londres eta New York, Routledge, 43-61. or.
- Keith, Daniel eta Luke March, 2016a “Introduction”, dans: Luke March eta Daniel Keith (zuz.), *Europe’s Radical Left: From Marginality To The Mainstream?*, Londres et New York, Rowman et Littlefield International, 1-23. or.
- Keith, Daniel eta Luke March, 2016b “Conclusion. The European Radical Left: Past, Present, No Future?”, dans : Luke March eta Daniel Keith

- (zuz.), *Europe's Radical Left: From Marginality to the Mainstream?*, Londres et New York, Rowman et Littlefield International, 353-379. or.
- Khadir, Amir, 2015 “Les mouvements sociaux et Québec solidaire”, dans : Philippe Crevier, Hubert Forcier eta Samuel Trépanier (zuz.), *Renouveler le syndicalisme*, Montréal, Écosociété, 220-247. or.
 - Lafrance, Xavier eta Catarina Principe, 2018 “Building “Parties of a New Type”: A Comparative Analysis of New Radical Left Parties in Western Europe”, dans : Paul C. Gray (zuz.), *From the Streets to the State : Changing the World by Taking Power*, Albany, SUNY Press, 43-64. or.
 - Lavallée, Josiane, 2011 “Du Parti de la démocratie socialiste à Québec solidaire : 1995-2010”, *Bulletin d'histoire politique*, 19, 2 : 202-214.
 - Lavelle, Ashley, 2008 *The Death of Social Democracy: Political Consequences in the 21st Century*, Londres et New York, Routledge.
 - March, Luke, 2011 *Radical left parties in Europe*, Londres et New York, Routledge.
 - March, Luke, 2016 “Radical Left ‘Success’ before and after the Great Recession: Still Waiting for the Great Leap Forward?”, dans : Luke March eta Daniel Keith (zuz.), *Europe's Radical Left: From Marginality To The Mainstream?*, Londres et New York, Rowman et Littlefield International, 27-50. or.
 - March, Luke, 2018 “Radical Left Parties and Movements: Allies, Associates, or Antagonists?”, dans : Magnus Wennerhag, Christian Fröhlich eta Grzegorz Piotrowski (zuz.), *Radical Left Movements in Europe*, Londres et New York: Routledge, 22-42. or.
 - March, Luke eta Charlotte Rommerskirchen, 2015 “Out of left field? Explaining the variable electoral success of European radical left parties”, *Party Politics*, 21, 1 : 40-53.
 - Martin, Pierre, 2018 *Crise mondiale et systèmes partisans*, Paris, Presses de Sciences Po.
 - McGrane, David, 2019 *The New NDP*, Vancouver, UBC Press.
 - Moschonas, Gerassimos, 2002 *In the Name of Social Democracy: The Great Transformation, 1945 to the Present*, Londres et New York, Verso.
 - Mudge, Stephanie L., 2018 *Leftism Reinvented: Western Parties from Socialism to Neoliberalism*, Cambridge, Harvard University Press.

- Nadeau, Richard eta Éric Bélanger, 2013 “Un modèle général d'explication du vote des Québécois”, dans : Frédérick Bastien, Éric Bélanger eta François Gélinau (zuz.), Les Québécois aux urnes : Les partis, les médias et les citoyens en campagne, Montréal, Presses de l'Université de Montréal, 191-207. or.
- Offe, Claus eta Helmut Wessenthal, 1980 “Two Logics of Collective Actions: Theoretical Notes on Social Class and Organizational Form”, Political Power and Social Theory, 1 : 67-115.
- Organisations unies pour l'indépendance du Québec (OUI-Québec), 2021 Qui sommes-nous? [<https://ouiquebec.org/organisation/>], 2021eko abuztuaren 2an kontsultatua.
- Panitch, Leo eta Donald Swartz, 2003 From Consent to Coercion: the Assault on Trade Union Freedoms, Toronto, Garamond Press.
- Petitclerc, Martin eta Martin Robert, 2018 Grève et paix. Une histoire des lois spéciales au Québec, Montréal, Lux.
- Pilon, Dennis, Stephanie Ross eta Larry Savage, 2011 “Solidarity Revisited: Organized Labour and the New Democratic Party”, Canadian Political Science Review, 5, 1 : 20-37.
- Pottle, Jean-Marc, 1977 Un syndicalisme de combat, Montréal, Albert Saint-Martin.
- Pottle, Jean-Marc, 1998 Du combat au partenariat : interventions critiques sur le syndicalisme québécois, Québec, Nota Bene.
- Presse-toi à gauche!, 2021 “La lutte contre le racisme systémique à QS et le collectif antiraciste décolonial”. [<https://www.pressegauche.org/La-lutte-contre-le-racisme-systemique-a-QS-et-le-collectif-antiraciste>], 2022ko urtarrilaren 30ean kontsultatua.
- Québec solidaire, 2018 Notre programme. [<https://quebecsolidaire.net/propositions/notre-programme>], s2021eko uztailaren 19an kontsultatua.
- Radio-Canada, 2010 “Le PQ montre la porte au SPQ libre”. [<https://ici.radio-canada.ca/nouvelle/466664/spq-libre-expulse>], 2021eko abuztuaren 2an kontsultatua.
- Radio-Canada, 2021 “Québec solidaire veut ramener à l'ordre son collectif antiraciste”. [<https://ici.radio-canada.ca/nouvelle/1789403/>]

- quebec-solidaire-collectif-antiraciste-motion], 2022ko urtarrilaren 30ean kontsultatua.
- Raymond, Ghislaine, 2013 Le “partenariat social”. Sommet socio-économique de 1996, syndicats et groupes populaires, Montréal, M Éditeur.
 - Rioux, Bernard, 2019 “L’avancée électorale de Québec solidaire : Nouveaux défis, nouveaux débats, nouvelles pratiques”, Nouveaux Cahiers du socialisme, 21 : 198-201.
 - Ross, Stephanie eta Larry Savage (zuz.), 2012 Rethinking the Politics of Labour in Canada, Halifax et Winnipeg, Fernwood.
 - Ross, Stephanie eta Larry Savage (zuz.), 2013 Public Sector Unions in the Age of Austerity, Halifax et Winnipeg, Fernwood.
 - Ross, Stephanie, 2012 “Business Unionism and Social Unionism in Theory and Practice”, Stephanie Ross eta Larry Savage (zuz.), Rethinking the Politics of Labour in Canada, Halifax et Winnipeg, Fernwood, 33-46. or.
 - Rouillard, Jacques, 2011 “Le rendez-vous manqué du syndicalisme québécois avec un parti des travailleurs (1966-1973)”, Bulletin d’histoire politique, 19, 2 :161-182.
 - Rouillard, Jacques, 2012 “Historique de l’appui à l’indépendance politique du Québec par le mouvement syndical”, Bulletin d’histoire politique, 20, 3 : 103-123.
 - Saillant, François, 2020 Brève histoire de la gauche politique au Québec, Montréal, Écosociété.
 - Savage, Larry eta Nick Ruhloff-Queiruga, 2017 “Organized labour, campaign finance, and the politics of strategic voting in Ontario”, Labour/Le Travail, 80: 247-271.
 - Savage, Larry eta Charles W. Smith, 2013 “Public Sector Unions and Electoral Politics in Canada”, dans : Stephanie Ross eta Larry Savage (zuz.), Rethinking the Politics of Labour in Canada, Halifax et Winnipeg, Fernwood, 46-56. or.
 - Savage, Larry eta Charles W. Smith, 2017 Unions in Court. Organized Labour and the Charter of Rights and Freedoms, Vancouver, UBC Press.

- Savage, Larry, 2008 “Quebec Labour and the Referendums”, *Canadian Journal of Political Science*, 41, 4 : 861-887.
- Savage, Larry, 2010 “Contemporary party-union relations in Canada”, *Labor Studies Journal*, 35, 1 : 8-26.
- Savage, Larry, 2012 “Organized Labour and the Politics of Strategic Voting”; : Stephanie Ross eta Larry Savage (zuz.), *Rethinking the Politics of Labour in Canada*, Halifax et Winnipeg, Fernwood, 75-87. or.
- Swartz, Donald eta Rosemary Warskett, 2012 “Canadian Labour and the Crisis of Solidarity”, Stephanie Ross eta Larry Savage (zuz.), *Rethinking the Politics of Labour in Canada*, Halifax et Winnipeg, Fernwood, 18-32. or.
- Tremblay-Pepin, Simon, 2016 “Les prochaines étapes de Québec solidaire. Vers un parti hybride ?”, *Nouveaux Cahiers du socialisme*, 15 : 202-206.
- Tsakatika, Myrto eta Marco Lisi, 2013 “‘Zippin’ up My Boots, Goin’ Back to My Roots’: Radical Left Parties in Southern Europe”, *South European Society and Politics*, 18, 1: 1-19.
- Warskett, Rosemary, 2013 “Federal Public Sector Unions in Times of Austerity”, Stephanie Ross eta Larry Savage (zuz.), *Public Sector Unions in the Age of Austerity*, Halifax et Winnipeg, Fernwood, 126-138. or.
- Wood, Ellen Meiksins, 1995 *Democracy Against Capitalism*, Cambridge, Cambridge University Press.

